

B

BARREN

TOKIKOM



Soralucek 50 urte

Enrike Larrañaga, Soraluce kooperatibaren sortzaileetako bat

Herri Gain

Idotorbeko errepidean, 1,5. Km.
Tel.: 943 743 040

jatetxea

**Amaren Egunean,
maiatzaren 6an,
MENU BEREZIA!!**

**Ezkontzak, jaunartzeak, enpresa bazkariak,
urtebetetzeak... egiten ditugu.
ZATOZ aurrekontu batekin eta
horri egokitutako menua egingo dizugu!**

GURE BEREZITASUNA

**Arrainak eta haragiak parrilan!
Karta
Eguneko menu berezia 20€**


ORDUTEGIA

**Astelehenetik ostegunera 10:30etik 22:30era
Ostiraletik igandera 10:30etik itxi arte.**

ZURE ZAIN GAITUZU!!

**Garraio zerbitzua
personako 3€**





Anjel Ugarteburu

Gure txanda berriro ere helduta, zer idatzi ez nenkiela nengoan, Andres, zapatu goizean, lehor eta antzu. Zer esan? Behin eta berriro informazio-iturrietan entzun, ikusi eta irakurtzen ditugunak errepikatu edo komentatzea baino gauza aspergarriagorik! Gu-retzat hala badira, atera kontuak zer izango diren irakurlearentzat.



Andres Alberdi

Lerro hauek irakurtzeko lana hartzen duten apurrek zerbait berria eta atsegina izan zezatela nahi najuan, baina, ibaiak gainezka eta zelaiak heze egon arren, nire buruan eta irudimenean lehortea zuan nagusi.

“Egunerokotasun gris eta tristean ere bajagok zertaz poztu eta itxaropena izan”

Salobente aldera gindoazan emaztea eta biok, udaberriak, urtero legez, Muskiritxu aldea zenbat kolorez jantzi duen miretsiz. Marroi eta okreetatik hasi eta apirilera berde argi *pristinoaren* arteko gama osoa begien aurrean. Naturak era ziklikoan eskaintzen digun mirari harrigarria eta atsegina. Gai horri helduko ote nion, bada?

Halako batean telefonoaren hotsak jaso jok inguruari begira sorgoturik zegoan gure arreta:

- Gari jaio da.

Semearen bigarren semea iritsi da gure artera, udaberriko kolore-festaren erdian. Hortxe bukatu dok buru, bihotz eta irudimenaren lehor-tea eta poz-jario bihurtu dena. Landareetan gertatzen den bezalatsu, gizakion bizitzan ere zikloak dena berdintzen jok bere gurpilean. Aitita-amamek pozik ikusten juek bizitzako abentura hasten duten bilobetan birloratzen den esperantza. Aimar, Irati eta orain Gari. Gure nahigabe eta ezinak gozatzera datozen mirariak dituk. Halaxe hire eta beste askoren kasuan ere, Andres. Egunerokotasun gris eta tristean ere bajagok zertaz poztu eta itxaropena izan. Hala izan duk eta hala izango.

Sarritan ondo aspergarriak dituk, bai, informazio-iturrietako albisteak. Hala ere, ezingo didak ukatu azkenaldi honetan errege-familiari gertatutakoek ez dutela ematen txantxa eta trufarako biderik, pentsurik. Zer-eta, pantokratorrak berak eman ziguk, gainera, errematea: ateraldietan tronpatzeaz gain, eta hartz edariz tronpatuak (bakarrik haiek?) ehizatzeaz gain, tronpadunekin tronpatze hori... mundiala izan duk. *Tronpatu* hitzaren semiotika eta adiera guztiak bere pertsona bildu dizkik horratik.

Horiek utzita, gertuagoko bidetik jo duk, Angel. Are gehiago; bihotzetik ere hitz egin duk: Aimar, Irati eta Gari etxeko izarrak hartu dituk aipagai. Heuk esan bezala, bizitzaren zikloaren beste koska bat dituk, gizakiaren hezur-mamitzearen isla joria, zikloaren mirariak. Duela bederatzi hilabete izan genian guk ere erreleboaren saria: Lur. Egin dezatela denek ere argi luzaroan!

Gure lana horiekin eta horientzat zubi-lana egitea izango duk. Baina ez zeukaagu langintza erraza. Izan ere, suerteko belaunaldia izan duk gurea: ez genian gerrarik ezagutu, ez genian goserik jasan, lan-merkatuan erraz samar murgildu gintuan, eta, guri dagokigunez, erabat betetzen gintuan lan batean gainera... Bizitza molde nahiko eroso eta egokian bizitzea suertatu zaiguk, zorionez. Ongizatezko gizartearen paradigma bihurtu gaituk. Gai izango ote gara neurri bertsuko mundu bat antolatzen edota eusten haientzat?

“Guri zegokiguk, gizakioi, egitekoetan eskua sartzea eta haiei bidea erraztea”

“Urruti zegok hura (Jainkoa), han bere zeruan”, zioan poetak (eta, tamalez, ez omen zioan erantzun). Bistan zegok jokoa, beraz: guri zegokiguk, gizakioi, egitekoetan eskua sartzea eta haiei bidea erraztea. Lortuko ote dugu?

Laino (oso) beltzak dakuskiat ostertzean, eta erne ibili behar ko diagu.

PINTURAK KONPONKETAK
 ARDARLANDE ARDARANDE OBRERAKO

Pedro Pérez Beristain
 Xibillon Kalea 2 soltoa 3
 943 74 35 52 - 639 76 09 19
 pinturas@euskaitel.net

FATXADAK ETA KOMUNITATEAK - BERRIZTAKETAK - ETXKO KONPONKETAK

ELENA
 ileapaindegia

Depilazio Elektrikoa

San Frantzisko 49 - I Tel: 943 741 189

Barren

Nafarroa plaza, 2 • 20870 ELGOIBAR

☎ 943 744 112

E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com

Publizitatea: ☎ 943 744 112

E-posta: barren.publi@elgoibarkoizarra.com


BARRENek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. **BARRE**Nek ez du bere gain hartzen **NIRE TXANDA, ZOZOAK BELEARI** eta **ESKUTITZAK** ataletan adierazitako enrantzukizunik.

COORDINATZAILEA Ainhoa Andonegi
KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia HIZKUNTZA ARDURADUNA Ainara Argoitia PUBLIZITATEA Leire Rubio
MAKETATZAILEA Zaloa Arnaiz MAKETAREN DISEINUA Jaione Unanue KOLABORATZAILEAK Iñigo Lazkano, Anjel Bazterretxea, Andres Alberdi, Angel Ugarteburu, Justo Arriola, Arkaitz Irureta, Zuhaitz Gurrutxaga, Unai Arrieta, Noemi Otegi, Ainara Sedano, Jesus Mari Makazaga, Jairo Berbel, Joanes Rodriguez, Maialen Arnedo, Ainhoa Lendinez, Iñigo Lariz, Jose Luis Azpillaga, Amaia Larrañaga INPRIMATEGIA Gertu Koop.
E. TIRADA 4.800 ale LEGE GORDAILUA SS-1.038/92 ISSN 1139-1855

Argitaratzailea:



Laguntzaileak:



GUTUNAK



BARRENeK ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako enrantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira. Ez ahaztu **izen-abizenak, NAN** eta **telefonoa** jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.com.

Elgoibarko kirol elkarteak

Elgoibarko kirolean egindako lanak bere fruituak eman ditu. Talde desberdinak lortzen ari diren emaitza onak begi bistakoak dira. Azpimarratzekoak dira lortutako emaitza onak: Elgoibarko Sanlo EKTko talde asko Euskadiko finalera heltzea eta igoera faseetan egotea, besteak beste. Ezin utzi aipatu gabe areto futboleko, futboleko, atletismoan eta beste hainbat kiroleko lortutako emaitzak ere. Elgoibartar askok euren denbora librean burututako lana goraiatu nahiko genuke, euren kiroleko ematen duten laguntzagatik. Eskerrak eman nahiko genieke, baita ere, enpresatako laguntzaileei eta Elgoibarko Udalari, horien guztion laguntzarik gabe ezinezkoa litzatekeelako lortu dugun kirol maila izatea.

Amaizteko, aste honetako eskubaloi taldeko senior nesken igoera fasean eta datorren asteko senior mutilen igoera fasean animatzeko eskatzen dizuegu. Oso lagungarri izango baitaie herrietan babesa. Aupa Elgoibar!

EGI Elgoibar

XIX. Jose Gurrutxaga krosa

Ikastolaren izenean eskerrak eman nahi dizkiegu joan den igandean ospatutako XIX. Jose Gurrutxaga Krosa antolatzen lagundu zutenei: Egotoki, Aterpe, Eroski Bidaia Eibar, Caixa, Aldatz, Ametsa, Antxustegi Zeramikak, Bidasolo Garoitaonandia farmazia, Biena aroztegia, Castrillejo estankoa, Gabi jatetxea, Jai Alai, Karkizano, King Kong Kafetegia, Lanbroa, Lete, Toletxe, IIs, Etxepe, Sum. Ind. Carmelo Iriondo, Jasone zerbitzu grafikoa, Gaindu, Sariki, Bbva, Pelegrin, Aranburu bitxitegia, Arkupe, Astigarraga kirolak, Beitia-Arriola hortz klinika, Coviran, Doña Mercedes eta Eizagirre okindegiak, Eroski, Fadak ileapaindegia, Ibamar, Idama ileapaindegia, Iriondo kirolak, Kala loradenda, Larrañaga autoeskola, Leigar, Luvik oinetakoak, Mekanosa, Muruamendi, Osoro zapata denda, Sahatzu, Surya, Urnabitza aseguruak, Uzuri optika, Xagua, Ziarda, Micro System, Garbiñe, Bire, Gerardo Matenzon, Debape, Txinarrak Maala, Arantxa eta Marian, Norfo, Amaro egiturak, Zezenbide, Jose Antonio ileapaindegia, Dori, Irale hortz klinika, Fisioter Erreabilitazio Zentrua, Basoarte, Pilon, Nava inprimategia, Mutua General Seguros, textil hogar

Lagunak, Banco Santander, Arbeloa inmobiliaria, Armueta, Ecenarro, Ekuador bidaia, Etxeberria farmazia, Ferpi erropa Konponketak, Foterok okindegia, Gabilondo inmobiliaria, Gautxo, Garate jantxidenda, Goar aholkularitza, Hair ileapaindegia, Hazte, Ibaiondo, Ikus optika, Ipintza, Iraola harategia, Iriondo altzariak, Iriondo taberna, Iturri, Julio Bueno, Kaia, Kartutxo denda, Kemen belardenda, Kontxi, Landa taberna, Lau, Lerun Taberna, Lizzy, Maren, Mapfre, MG burdindegia, Nuvan dekorazioak, Oinez eta Ostruka zapatadendak, Patxi harategia, Sara jantxidenda, Skandalo, Sua, Sugar, Urkiola, Ziur jantxidenda, Zazpi informatika, Segur Arno, Maalako Kioskua, Netto kioskua, Comercial Alkorta Anaiak, Unanue, Malape, Kopilan, Agurtzane, Maidagan, Jon, Yudego, Maria Angeles, Olaia edergintza, Ogiberri, Biak, G&M jantxidenda, San Francisco estankoa, Osoka, Mari, Teod, Softlan, Aupa Zen, Gorbea, Ize liburudenda, Judith edergintza, Denolan, Oin Berri, Presst. Eta, batez ere, Elgoibarko Udala, Elgoibarko Udala Kirol Patronatua, Danobat, Goiti, Egile, Alkorta, Netto, Birstain Banaketa, Alzola-Urak, El Diario Vasco eta babeslea izan den Kutxari. Bestalde, eskerrak beroenak parte hartu duten neska-mutiei.

Elgoibar Ikastola

Zuzenketa

Joan zen astean Mendaroko Txirindulari Elkarteak gutun bat argitaratu genuen aldizkari honetan bertan gure babesleei eskerrak emateko, baina babesleen zerrendan bat ahaztu zitzaigun: Mendaroko Landa erretegia. Mendiko lasterketa ez ezik uztailean antolatutako ohi dugun jubilenen lasterketa ere laguntzen du diruz Landak. Eskerrak asko, beraz, Landa erretegiari eta gainerrako babesle eta laguntzaile guztiei, azkeneko urte hauetan guztietan gudan sinisteagatik.

Mendaroko Txirindulari Elkarteak

OHARRA

Maiatzaren 1eko jai eguna dela-eta, **BARRE**neko lantaldeak jai zubia egingo du datorren astean. Beraz, maiatzaren 4an ez dugu aldizkaririk kaleratuko. Hurrengo alea maiatzaren 11n jasoko duzue.



Madalako zubian zulo handi bat dago: “Madalako zubian lurzorua hondatuta dago, eta zulo handi bat dago aspalditik. Eskertuko genuke konpontzea”.



Pista Beltzean putzu handiak sortzen dira euria egiten duenean: “Pista Beltzean obrak egin zituzten, baina hala eta guztiz ere, euria egiten duenean putzu handiak sortzen dira. Oinezkoak kontu handiz ibili behar izaten dugu, izan ere, autoak poliki joan arren, ziprztindu egiten gaituzte, eta aurreko batean goitik behera zikindu ninduen batek”.



Zuen kezak, galderak edo txaloak bidaltzeko: barren@elgoibarkoizarra.com 943 744 112



Txalo bero bat Udalari, txakurren gaineko ordenantza berria indarrean jartzeagatik: Gai honi buruzko bi txalo jaso ditugu erredakzioan aste honetan. “Txakurren kontra ezer eduki ez arren, ez zaigu gustatzen geure inguruan ibili daitezzen”, zioen batek, eta besteak: “Txalo bero bat Udalari txakurren gaineko ordenantza berriagatik, herriko elkarbizitza hobetzeko dela uste dugunon partez”.

Txalo bero bat Iriondo tabernari, glutenik gabeko garagardoa ekarri duelako: “Iriondo tabernari eskerrak eman nahi dizkiogu glutenik gabeko garagardoa ekartzeagatik, eta bide batez, herriko gainerako tabernariei Iriondoko eneredua jarraitzeko eskatu nahi diegu”.

III. URTEURRENA

IGNACIO GARATE GOIHARTZUN



2009ko apirilaren 30ean hil zen, 88 urte zituela.
Haren oroimenez III. urteurreneko meza izango da, zapatuan, apirilak 28, arratsaldeko 19:00etan Elgoibarko Bartolome deunaren parrokian.
Joango zaretenoi eskerrak aldeztu aurretik.



ESKERTZA

MARIA ASUNCION MONJE MUGUERZA



2012ko apirilaren 16an hil zen.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak.

LANBIDE HEZIKETA

OFIZIOAK IKASTEKO BIDEA



DBHko ikasleen artean Lanbide Heziketa sustatzeko jardunaldiak antolatu ditu Udalak hirugarren urtez, Manahmana enpresaren laguntzarekin. Ikastolako eta Institutuko ikasleentzako jardunaldi horietan Meka eta IMHren eskaintza jaso dute ikasleek, eta horrekin batera, Elgoibarko enpresa bat bertatik bertara ezagutzeko aukera izan dute.

Ainhoa Andonegi

Lanbide Heziketak izan dezakeen konnotazio txarra garbitu eta, aldiz, eskaintzen dituen onurak indartzea da jardunaldi hauen helburua, Miriam Montero Udaleko teknikariak eta Aitor Guisolsa Manahmana enpresako kideak esandakoaren arabera. Zorionez, Lanbide Heziketaren itxura txar hori asko aldatu dela uste dute, baina oraindik orain, Elgoibarko ikasleek nahiago dute unibertsitatea. Matrikulazio datuei erreparatuz, %15 inguru dira Mekan matrikulatutako elgoibartarrak.

Hirugarren jardunaldiak

Batxilergoa ala Lanbide Heziketa? Etorbizuna erabakitzeko une garrantzitsu horren atarian daude Ikastolako eta Institutuko DBHko ikasleak. Urduritasuna eta zalantza argitzeko, eta bereziki, Elgoibarren dagoen eskaintza azaltzeko antolatu dituzte Lanbide Heziketa Jardunaldiak. Elgoibarren dagoen aukera sustatu nahi du Udalak, eta horregatik hasi ziren orain dela hiru urte Lanbide Heziketaren aldeko apustua egiten. Industria oso garrantzitsua da gure herrian, eta horri lotuta, Lanbide Heziketa sustatzea ezinbestekoa dela uste du Miriam Monterok.

Elgoibar herri industrial da, eta gainera, Lanbide Heziketari dago-kionean Euskal Herriko zentronik “onenak” ditugu Elgoibarren, eta ikasleentzat aukera “bikaina” dela uste dute Lanbide Heziketa. Unibertsitatea ez bezala, Lanbide Heziketa lan mundura bideratuta dago zuzen-zuzenean. Ofizioak ikasteko aukera eskaintzen du, eta enpresako lana nolakoa izango den irakasten dute. Praktikotasun horri esker, ikasleek badakite gero zein lan egingo duten enpresan.

Aurtengo berrikuntza jardunaldien alor praktikoa izan da. DBHko ikasleek IMHko eta Mekako ikasleen ahotik Lanbide Heziketari loturiko bizipenak entzun dituzte, eta, besteak beste, Lanbide Heziketako ikasketak aukeratzekoan beldurrik ez edukitzeko esan diete. Huts egitearen beldurrez ikasle asko ez dira ausartzen Lanbide Heziketa aukeratzeko, baina lehenengoan asmatzen ez bada, urtebete edo bi galtzeagatik ez dela ezer pasatzen azaldu diete. Era berean, Isla galdaragintza enpresa bisitatu dute, eta Lanbide Heziketa praktikan ikusteko aukera izan dute.

Antolatzaileak “pozik” agertu dira jardunaldiek izan duten harrerarekin. Jardunaldi dinamikoak izan direnez, ikasleek aktiboki hartu dute parte, eta oso gustura geratu dira.

**Elgoibarren industria oso garrantzitsua denez,
Lanbide Heziketaren aldeko apustua egin du Udalak**



Axun Larrañaga Mekako zuzendaria

“Krisi garaian prestakuntza ezinbestekoa da”

Lanbide Heziketako ikastetxe publikoa, euskalduna eta bertzailea da Meka, eta lotura zuzena dauka Elgoibarko, Euskal Herriko zein atzerriko enpresekin.

2007an hartu zuen Axun Larrañagak ikastetxeko zuzendaritza, eta ordutik matrikulazioak bikoiztu egin dira. 223 ikasle zeuden Mekan 2007an, eta aurtengo ikasturtean 489 dituzte. Enplegu datuak, ordea, okerrera egin dute azken urteotan. 2007an ikasleen %79 hasi ziren lanean zikloak amaitu bezain laster, %9k ikasten jarraitu zuten, eta %12 langabezian geratu ziren. 2010eko ikasturtean, aldiz, %52 hasi ziren lanean. Ikasten jarraitzen duten ikasleen kopurua %26ra igo da, eta ikasleen %22 langabezian geratu ziren. Krisiak eragin zuzena izan du horretan, eta Axun Larrañagak argi dauka krisialdi hau ikasteko aprobetxatu behar dela: “Prestakuntza ezinbestekoa da krisi garaian”, esan du.

Euskal Herriko eskaintza zabalenerarikoa dauka Mekak. Erdi mailako zazpi ziklo eskaintzen ditu (Erizaintza, Administra-

zio kudeaketa, Mendekotasun egoeran daudenei arreta, Soldadura eta galdaragintza, Karrozeria, Elektromekanika, eta Makinariaren Elektromekanika), eta goi mailakoak lau (Administrazioa eta finantzak, Haur Hezkuntza, Automozioa eta Metal eraikuntzak). Horietatik bi berriak dira, gainera, eta datorren urtean jarriko dituzte martxan: Erdi mailako metal eraikuntzak eta Goi Mailako Makinariaren Elektromekanika. Krisi garai honetan eta hezkuntzan egiten ari diren murrizketekin bi ziklo berri martxan jartzeko aukera oso zentro gutxi dutela adierazi du Axunek.

Euskal Herri guztiko ikasleak dituzte Mekan, eta horietatik %14,11 dira elgoibartarrak. Datu esanguratsua da, eta Axun Larrañagak berak ere onartzen du Elgoibarko ikasleak Lanbide Heziketara bideratzeko zailtasunak dituztela. Hori dela-eta, begi onez ikusten du azken urteetan Elgoibarko Udalak Lanbide Heziketa sustatzeko egiten ari den lana.

Joxean Egaña IMHko zuzendaria

“Lanbide Heziketak aukera malgua eskaintzen du”



Zein da IMHren eskaintza?

IMHn ikasleentzako eta langile zein langabetuentzako prestakuntza eskaintzen dugu, hiru alorretan banatuta: Goi eta erdi mailako zikloak, Txandakako ingeniariaritzaren eta langile zein langabetuentzako prestakuntza teknikoa. Aipatu behar da Txandakako Ingeniariaritzaren EHUren eskaintzan sartu dutela. Iaz langile-langabeentzako ikastaroetan 1.343 ikasle izan genituen, eta 8.343 ikastaro ordu eman genituen. Heziketa zikloetan, aldiz, 192 ikasle izan ditugu, eta horietatik %8 emakumezkoak. Portzentaje hori %10era igo izan da noizbait, baina normalean 7-10 bitartean ibiltzen da. **Langabezia dela eta, jende asko ikasten hasi da. Eskareri erantzuteko gaitasunik badu IMHk?**

Heziketa zikloetan izena ematen duten guztientzako lekua dago. Ingeniariaritzan 40 ikasleko muga daukagu, eta langileen prestakuntzan jendea kanpoan geratu zaigu azkenaldian, bi arrazoi nagusigatik: batetik, enplegurako prestakuntza finantzatzen duten erakundeek laguntzak asko murriztu direlako azken hiru ur-

teetan, eta bestetik, ikastaroetan langabeen gehieneko kopurua %40koa delako da, eta krisiaren eraginez langabe asko daudelako.

Zenbatekoa da enplegutasuna?

2008ra arte nahi zuen guztiak zuen lana, eta, gainera, aukeran. Krisiarekin egoera aldatu egin da. 2011n enpresetako praktikak amaitzean ikasleen %46 laneratu ziren, %13 lanik gabe gelditu ziren eta %41ek ikasten jarraitu zuten. Era berean, “ikasi eta lan” zikloa amaitu zutenean laneratzeko %70ekoa izan zen, eta Txandakako Ingeniariaritzari ekin ziotenek dagoeneko lan kontratua dute.

Zure ustez, zeintzuk dira lanbide heziketaren abantailak?

Lanbide Heziketak aukera malgua eskaintzen du, eta bizitzan faseka ikastea ahalbideratzen du, heldutasuna eta esperientzia lortuz.

Krisi garaian gaude, eta formatzeko garaia dela diote.

Zalantzarik gabe gaitasun handiagoa duten pertsonak lortuko dute lana eta gaitasuna hobetzeko erremintarik onena prestakuntza da.

Bilduk salatu du Debabarrena dela Gipuzkoan gutxien birziklatzen duen eskualdea

2011n Elgoibarren sortutako hondakinen %75,67 zabortegira bota zutela salatu dute

Jose Luis Ibarzabal eta Igor Aldalur Elgoibarko eta Eibarko Bilduko ordezkariak hondakinen inguruko hainbat datu eman dituzte, eta horren arabera, Debabarrena da Gipuzkoan zabor gutxien birziklatzen duen eskualdea. Gipuzkoan batezbeste hondakinen %40 inguru birziklatzen dira, eta Debabarrenan %27 birziklatu zen 2011n. Era berean, Mankomunitatetik jasotako datuak aipatuz, Elgoibarren sortutako hondakinen %75,67a zabortegira bota zutela (Eibarren %78,44) salatu zuten Bilduko ordezkariak. Gauzak beste modu batean egiteko eta emaitza hobekitzeko modua badagoela uste du Bilduk, eta gako etxean ongi bereiztean dagoela nabarmendu dute. Mankomunitateari hon-



dakinen inguruan irtenbideak bilatzeko "behar den energia guztia" jartzeko eskatu diote, Europako birziklatze tasetara heltzea, eta helburu hori lortzeko bi-

dean atez ateko sistema gustuko ez badute, emaitza berberak ematen dituen beste sistema bat proposatzeko eskatu diote.

Hiru urterako Elgoibarko Enplegu Plana aurkeztu du Udalak

Enpresa txiki eta ertainen lehiakortasuna indartzeko asmoz hiru urterako Enplegu Plana prestatu du Udalak, eta eguaztenean aurkeztu zuten IMHn. Krisi egoera honetan, Elgoibarko Udalak herriko enpresei lagundu nahi die. Egungo egoera ekonomikoak gizarte eragileen ahalegin handiagoa eskatzen du, eta horregatik hobekuntzarako, berrikuntzarako eta herriko enpresek dituzten erronkei aurre egiteko laguntzak emango ditu Udalak. Alfredo Etxeberria alkateak egin zuen aurkezpena, eta ondoren, Berrikuntzako, Turismo-ko eta Landa Garapeneko diputatu Jon Peli Uriguenek, AFMko zuzendari Xabier Ortuetak eta Alfa Taldeko presidente Jon Ander Buenetxeak lehiakortasunaren eta lankidetzaren esparru orokorrari buruz jardun zuten.




'Elgoibar bakea eraikitzen' ekimena jarriko dute martxan

Euskal gizartean garai berria hasi dela-eta, lehen-tasuna bizikidetzeta eta berradiskidetzeta kultura bultzatzea izango dela azaldu du Alfredo Etxeberria Elgoibarko alkateak, eta Lokarri eta Baketik erakundeen bidetik jarraituz, Elgoibar bakea eraikitzen ekimena jarriko du martxan Udalak 2012an. Egitasmoaren aurkezpen publikoa maiatzean edo ekainean egitea aurreikusi dute, eta estreinako urtean berradiskidetzeta zer den adostuko. Prestakuntza saioak eskainiko dituzte, eta saio horietara elkarteak, alderdi politikoak, ikastetxeak, herritarrak eta zinegotziak gonbidatuko dituzte.

Darrin Wood kazetariak hitzaldia emango du maiatzaren 2an

Arnaldo Otegiaren aldeko plataformak hitzaldia antolatu du maiatzaren 2rako. Darrin Wood kazetari estatubatuarra izango da hizlaria, eta Estatu Batuetako preso politikoak izango ditu hizpide. 19:00etan hasiko da hitzaldia, Kultur Etxeko hitzaldi gelan. Horrez gain, elkarretaratzea egingo du bihar, 13:00etan Kalegoen Plazan (Plaza Handia), Arnaldo askatu, auzipetuak askatu lemapean.

Pertsonaia **Eneko Iturbe**



Getxo Moda diseinatzaile gazte-entzako lehiaketako finalerako sailkatu zen Eneko Iturbe diseinatzailea, baina saririk gabe itzuli zen etxera. Hala ere, bere diseinuak ezagutzera emateko aukera ezinhobea izan da elgoibartarrarentzat, eta egindako lanaz “pozik eta harro” dagoela adierazi du. Aurten Francis Montesinos diseinatzaileari omenaldia egin diote ekitaldian, eta Eneko Iturbek ez zuen berarekin argazkia ateratzeko aukera galdu.

Berbia **Garagardo feria**

Trinitateetako Danborradaren Batzordeak garagardo feria antolatu du, nagusien danborradarako dirua batzeko asmoz. Maiatzaren 10ean zabalduko dute karpa, eta hilaren 13ra arte sei garagardo mota desberdin dastatzeko aukera eskainiko dute. Edanaz gain, jatekorik ere ez da faltako, eta aurten oilaskoa ere eskainiko dute, ohiko saltxitxa eta txerri ukondoekin batera. Jaia girotzeko, bestalde, koadrilen arteko lehiaketa bitxi bat prestatu dute: garagardoz beteriko bost pitxar esku banatan hartuta, eszenatokian egin beharko dute korrika bost minututan, eta buelta gehien ematen dituenak irabaziko du. Parte hartzeko 15 euro ordaindu beharko ditu koadrila bakoitzak, eta jasotako diruaren erdia emango diote irabazleari. Aurreko urteetan bezala, Kirkil DJaren emanaldia izango da.

Irudia **Zabor edukiontzi marroiak**



Debabarreneko Mankomunitateak Santa Ana eta Santa Klara kaleetan jarriko ditu etxeko hondakin biologikoak biltzeko edukiontzi marroiak maiatzean. Elgoibarko erdigunean zortzi bat edukiontzi marroi daude dagoeneko, eta pixkanaka herri guztira zabaldu nahi du Udalak bihondakinak biltzeko sistema berri hau. Kanpaina amaitzerako 30 edukiontzi marroi izango ditu Elgoibarrek.

Gaur itzuliko da Kiribil barraskiloa

Neguko etenaldiaren ostean, gaur hasiko da berriro Kiribilka egitasmoa. Aurten Elgoibarko hainbat elkarte-eragilerekin harremanetan jarri dira Elgoibarko Izarrako arduradunak, eta elkarnalean prestatuko dituzte saioak. Musika eta musika tresnak izango dira lehen saiorako aukeratu dituzten gaiak, eta hainbat sorpresa egongo direla aurreratu dute antolatzaileek. 17:30ean hasiko da saioa, Kalegoen Plazan (Plaza Handia).

Elgoibarko Futbolin Txapelketa antolatu dute

Gazte Asanbladak Elgoibarko Futbolin Txapelketa antolatu du. Kanporaketak liga estiloan jokatuko dira, eta printzipioz lau liga egongo direla aurreikusi dute antolatzaileek. Bikote bakoitzak 2 euro ordaindu beharko ditu parte hartzeko. Interesatuak Salento, Iratxo edo Lanbroa tabernetan eman dezakete izena, edo barixakuetan Gaztetxean.

Bularreko minbiziari buruzko hitzaldia hilaren 3an

Katxalinek, bularreko eta ginekologiako minbizia duten emakumeen elkarteak, hitzaldia antolatu du maiatzaren 3rako. Arrate Plazaola Donostiako Institutu Onkologikoko doktorea izango da hizlaria, eta bularreko minbizia garaz antzematearen garrantziaz egingo du berba. 18:00etan hasiko da hitzaldia, Inazio Bereziartua musika eskolako auditorioan.

Ikasketa gela jarriko dute Kultur Etxeko sotoan

Maiatzaren 2tik 31ra bitartean zabalduko dute ikasketa gela Kultur Etxeko sotoan, Kultura Sailak jakinarazitakoaren arabera. 9:00etatik 21:00etara egongo da zabalik, astelehenetik domekara.




Haurreskolak

www.haurreskolak.net

Irailean eta urrian hasteko matrikulazio epea zabalik

Izenematea maiatzaren 2tik 11ra

Elgolbarko Haurreskola
943 742 141

MAIATZA ETA EKAINENKO SUSTAPENA

%15

Friendo Santa Ana 4 eta 6 - Tel.: 943 741 234
Elgolbar (Gipuzkoa)

%5

KANAPEA eta KOLTZOIA





Eraisgarri tapizatutako kanapea

HR Bisko koltzoia

PACE-NEURUA	LOTERA	OSAK	
135x190	1371€	779€	+ %5eko deskontua
150x190	1454€	829€	+ %5eko deskontua

%15era arteko deskontuak izan ditzakezu zure aurrekontuan!

%5eko deskontua gehitu ahal izango duzu sustapenak dituzten koltzoietan

PREST

MONDRAGON UNIBERTSITATEA

902 110 436

www.mondragon.edu/prest



ATE IREKIAK


Goi Eskola Politeknikoa
Arrasate MAIATZAK 12 larunbata, 10:30

Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea
Eskoriatza MAIATZAK 26 larunbata, 11:00

Gastronomia Zientzien Fakultatea
Donostia MAIATZAK 26 larunbata, 10:30



Erretratu zaharra



1961

Aste honetako erretratu zaharra Maite Loiolak ekarri du BARRENERA. Aiastiako txirrindulari igoerako lehen edizioan ateratako erretratua, 1961eko maiatzaren 28an, hain zuzen ere. Gaur egun, iraileko San Migel jaietan egiten da igoera, baina korrika. Ikus ditzagun zeintzuk diren argazkian azaltzen direnak:

Ezkerretik eskumara: Mikel Gorostiza, Carmen Loiola, Artiñano (Club Ciclista Guerniquesa) eta Jose Mari Agirre "Errezabal"(†).



ESKERTZA

FERNANDO MORENO JIMENEZ

*Esan gabekoak geratu zaizkigu
esandakoak, berriz, gogoan ditugu
zauden tokian zaudela
Fernando, maite zaitugu*



2012ko martxoaren 30ean hil zen. Haren oroimenez, meza izango da maiatzaren 1ean, goizeko 11:00etan Mendaroko Azpilgoeta parrokian.

ENRIKE LARRAÑAGA

**SORALUCE KOOPERATIBAREN
SORTZAILEETAKO BAT**

Soraluce enpresaren historian hizki larritan ageri da Enrike Larrañagaren izena (Eibar, 1931). Izan ere, Jose Maria Arizmendiarrera euskal kooperatibismoaren aita izandakoaren ideiak bere egin, eta Soraluce kooperatiba sortu zuen orain 50 urte, gazte ekintzaile talde batekin batera. Hasierako haiek garai zailak izan zirela aitortu du Larrañagak, baina justizia nahi batek hauspotuta, aurrera egin eta mugarri bat ezarri zuen talde hark. Gaur, 50 urte geroago, enpresako zuzendaritzak omenaldia egin die, gaur direna haiei esker direlako.



“Justizia soziala egiteko beharrak bultzatu zuen Soralucren sorrera”

Soraluce enpresak 50 urte bete ditu, eta urrezko ezteien harira antolatu duten erakusketako argazkietako batean han ageri zara, abade jantzita, lehen harria bedeinkatzen. Nolatan zu argazki horretan?

Bai, 1962ko apirilaren 29an izan zen, Osintxun. Esaten dute apaltasuna egia esatea dela eta egia errealitatea bera dela, bere alde on eta txarrekin. Bada egia hau da: Soraluce kooperatibaren ideia lehenengoz neuk azaldu nuelako nago hor.

Zelan sortu zitzaizuen enpresa sortzeko ideia?

25 urterekin iritsi nintzen ni Soraluze, apaiz nintzela [1956ko urria], eta umeak hezteko ardura eman zidaten. Sei abadetari gazteena nintzen han, eta parrokiako lanak antolatzeari ekin genionean, gazteen heziketaren gaineko ardura neuk hartzeko esan zidaten. 1957ko ikasturtea zen. Hala, gazteekin bilera egiten hasi nintzen; bilera haietan bizitza-aztertze pedagogia erabiltzen genuen. Metodologia hark hiru zutabe zituen: ikusi (egunerokoan zer gertatzen zen behatu eta gertatzen ari zenaz jabetu), epaitu (gertatzen ari zen hori baloratu, beti ere pertsonaren duin-

tasunaren, giza eskubideen eta herri baten eskubideen ikuspuntutik) eta ekin (ekintzak antolatu, gizartea hezi eta iraultza pertsonala eta soziala bultzatu). Bilera haietan egosi zen kooperatiba sortzeko ideia.

Zertaz hitz egiten zenuten bilera haietan?

18 urtetik 25 urtera bitarteko gazteak ziren bileretara etortzen zirenak, eta denek fabriketan lan egiten zuten. Gazte haiek euren lantokietan gertatzen ari zenaren berri ematen zuten bileretan, langileen eskubideen urraketan eta bestelako berri, eta orduan sortu zitzaidan kooperatiba sortzeko ideia.

Gazte haien justizia egarriak sortu zuen hortaz Soraluze? ala gehiegi esatea da hori?

Bai. Justizia sozial baten beharrak bultzatu zuen Soraluze kooperatibaren sorrera.

Zergatik kooperatiba eta ez beste egitura bat?

On Jose Maria Arizmendiarrerari entzuna nion aurrez ideia hura. Ordurako Arrasaten sortua zuten Ulgor-Fagor kooperatiba, eta handik ideia. Eta zergatik kooperatiba? Bada, enpresa egitura horrek giza duintasuna eta herriarekiko elkartasuna bezalako balioak enpresa kapitalista batek baino hobeto zaintzen dituelako, salbuespenak salbuespen.

Arizmendiarreraren eragina izan zenuen hortaz. Zer izan zen Arizmendiarrerari? Zein da egin zuen ekarpenik handiena?

Bai, tratua nuen Arizmendiarrerarekin eta haren eragina banuen, bai. Barinagako Iturbe baserrian jaio eta filosofia eta teologia ikasketak egin ostean, Arrasaten egin zituen 35 urte On Jose Mariak, apaiz, harik eta 1976ko azaroaren 29an hil zen arte. Handia egin zuen baserriar hark. Bera izan zen MCC ordezkari duen enpresa mugimendu indartsuaren sustatzaile eta aitzindari ideologikoa. Euskal Herriko lehen taldea eta estatuko zazpigarrena da gaur egun MCC, 200 enpresa baino gehiagorekin, eta aipatzekoa da, era berean, bere izaera originala dela-eta mundu osoan daukan izen ona. Gure enpresa guztiak halakoak balira Suminduen Mugimendua ez litzateke existituko gaur egun.

Zer ikasi zenuen zuk harengandik?

Kooperatiban pertsonaren duintasuna eta eskubideak, oro har, enpresa kapitalistan baino hobeto zaintzen direla eta enpresa eta beste erakunde guztiak pertsona eta herriaren zerbitzuan egon behar direla eta ez kapitalaren zerbitzuan. Balio on asko lantzen dira.

Adibidez?

Pertsonen batasuna, elkartasuna, taldeko lana, berrikuntza, esperientzia, eta ezaguera. Eta hori dena oso ondo azaltzen du Aitor Ruiz de Eginok, Soraluçeren 50. urtemugaren harira antolatutako lehiaketarako aurkeztu duen *Gu* eskulturaren.

Soraluce enpresaren sorrera bera ere ezin da hortaz Arizmendiarrerari gabe ulertu, ezta?

Ez, nik Arizmendiarreraren eraginik izan ez banu, garai hartan nirekin batzen zen gazte talde haren egonezin hark beste bide bat hartuko zukeen ziurrenik. Soraluçe koopera-

tiba egun dena baldin bada, Arizmendiarrerari ikasitako ideia hargatik da, hein handi batean. Hargatik eta 52 fundatzaile gazte haiek egindako lanagatik eta azkeneko 50 urte hauetan kooperatibista izan direnek egindakoagatik.

“Ezer ez genuen. Dena egin behar genuen, eta behar horrek kreatibitatea indartzen du”

Zelakoak izan ziren hasierako pauso haiek?

Ez ziren garai errazak izan. Soraluçen bere ideiak aurrera eramateko prest zegoen gazte talde bat bazela jakinarazi nion Arizmendiarrerari Arrasaten egin genuen batzar batean, eta gazte haien arteko enpresa munduan jantzia zen gazte dinamiko bat aukeratzeko agindu zidan. Halaxe, Jose Luis Eguren Mardaras aukeratu nuen nik, Eibarko Ameria Eskolan hezitako gaztea. Birritan batu ginen guztiok, eta talde bat aukeratu eta lanari ekitea erabaki genuen. Lan hori isilean egin beharra genuen, eta isileko lehenengo bilerak nire etxean bertan egin genituen, eta ondorengo beste bat Eibarko Loiola tabernan egin genuen hemezortzi lagunek, 1961eko irailaren 24an. Batzar Orokorra, berriz, Eibarko Azitain erretegiaren egin genuen, 1961eko

urriaren 12an, eta geroko bilera gehienak Soraluçeko Juventud Gonzaga aretoan egin genituen. Proiektua gorpuztuz zihoan, eta halaxe, 52 bazkideek batzarra egin eta bi egunera (1962ko apirilaren 29an), lehenengo harria jarri eta bedeinkatu genuen, Osintxun.

Soraluzeko gazte talde baten ekimenez sortutako enpresa izanda, nolatan joan zineten Osintxura?

Leku egokiagoa zelako. Soraluçen gainbehera zihoan enpresa bat erostea ere pentsatu genuen, baina gure ametsa makina onak egitea zen, eta hura ez zen horretarako lekua.

Nondik eskuratu zenuten kapitala?

Ez zen erraza izan, ez pentsa. Bazkide bakoitzak diru jakin bat jarri behar zuen, eta jakina, denek ez zuten. Ni sasoi hartan Caja de Ahorros Municipal de San Sebastiango kontseilaria nintzen, eta hori oso lagungarri egin zitzaigun, kredituak lortzea erraztu zigulako. Jendea leporaino sartu zen.

Krisi berba dabil denon ahotan aspaldian.

Zuek sortutako enpresa, baina, airoso ei dabil garai zail hauetan. Zer da gaur egun Soraluçe, eta zein da bere arrakastaren gakoa? 217 langile ditu gaur egun, horietatik 191 kooperatibistak, eta Danobat Group taldean sartuta dago. Hazten ari den enpresa da. Alemanian pabiloi berri bat eraikitzen ari dira, eta hamasei milioi euroko inbertsioa egin dute. Taladroak egiten dituzte, eta mundu osoan da ezaguna enpresa. Krisiari aurre egiten ari zaio. Are gehiago, lanpostuak sortzen ari dira, eta hori gauzak ondo egin diren seinale da. Jakina, beti egongo da zer hobetua.



Enrike Larrañaga sotana zuriarekin Soraluçe kooperatiba izango zenaren lehen harria bedeinkatzen, 1962ko apirilaren 29an.



Soraluce enpresa kooperatibaren bazkide fundatzaileak, 1962ko argazkian.

Ospakizunen astea da hau Soralucen. Fundatzaileen omenezko plaka aurkeztuko dute gaur, eta omenaldia egingo dizuete has-tapen haletan lanean jardun zenuten guz-tioi. Zelan bizi dituzu egun hauek?

Oso pozik. Guk erein genuen hazi hark eman ditu fruituak, eta harro gaude. Amets bat izan genuen guk orain 50 urte: pertsonaren duintasuna, berdintasuna, eta norbanakoen eta herriaren duintasuna lantzeko enpresa egitura bat sortu nahi genuen, baina ez geneukan ezer, ez dirurik eta ez beste ezer. Pertsona talde bat bagenuen, hala ere, eta egin zitekeela sinistu genuen. Eta gure amets ideal hura oso-osoa betetzea lortu ez badugu ere, pauso handiak eman ditugu.

Gazte talde baten ilusioak eta lanak egin du Soraluce gaur dena. Kanpoan egiten zena hemen bertan egin zitekeela sinistu zuen talde hark. Belaunaldi hartako askoren ustez, ilusioa da gaur egungo gazteek falta dutena.

Hala da. Langile gazte asko daude Soralucen, baina gehienak dirua irabaztera doaz. Ez dute espiritu kooperatibistik. Dirua irabazi nahi dute, bakar-bakarrik. Kontsumismo espirituak irabazi du. Besteen alde lan egite hori galdu da, eta hori barneratu behar dugu berriro ere. Soraluce sortu genuen garai hartan behar handia zegoen. Ezer ez geneukan. Ordukoen ondorengo belaunaldiak, baina, dena izan du eginda, eta erraz bizi izan dira. Guk, aldiz, dena egin behar genuen, eta behar horrek kreatibitatea indartzen du. Nik badakit Soraluce sortu zuten 52 lagunetako askok, adibidez Victor Iriondo edo Jose Luis Eguren batek, gehiago irabazten zutela euren enpresetan

Soralucen baino, baina zuten lanpostu hura laga zuten, ametsa betetzeko.

Isilean jardun zenuten taldea osatzeko lane-tan. Zela oroitzen dituzu garai haiek?

Ez zen erraza izan. Abade komunista deitzen zidaten. Soraluzeko enpresetako nagusiek berba egiteari laga zidaten, euren enpresetako jendea gure proiektura batu zelako.

Arizmendiarretak izugarrizko garrantzia ematen zion hezkuntzari. Zu zeu ere irakasle hasi zinen gero, abadetza lagata.

Bai, eta Elgoibarko Institutua zabaldu genuen. Filosofia irakaslea nintzen, eta Eibarren eskolak ematen ari nintzela hemen beste institutu bat sortu behar zela esan zidaten eta nigan pentsatu zutela. Etorriko nintzela agindu nien nik, baldin eta irakasle taldea aukeratzeko lagatzen bazidaten. Eta laga zidaten. Halaxe, irakaslerik euskaldunenak aukeratu nituen: Andres Alberdi, Inazio Garmendia, Pello Arrieta, Anjel Ugarteburu... euskararen alde lan handia egin da eta egiten ari dira Institutuan, eta oso pozik nago. Tejero bera etorri zen institutua zabaltzera. Gogoan daukat Espainiako bandera bidali zutela inauguraziorako eta ezkutatu egin nuela.

Lanbide heziketan punta-puntako zentroak daude Elgoibarren. Zer balorazio egiten duzu egiten ari diren lanaz?

Alde teknikitik lan bikaina egiten ari dira, baina iruditzen zait ez dela heziketa integrala ematen. Dimensio espirituala ez da behar beste lantzen eta niretzat hutsune bat da hori. Ez dakit nik hortik irtetzen diren pertsonak kapaz izango diren bizitzan sortuko zaizkien arazoak gainditzeko. Norberaren nortasuna indartu behar da. Iruditzen

zait ez zaiela ikasleei sakoneko *ni*-a lantzen irakasten. Gero eta depresio kasu gehiago daude, eta horrek esan nahi du pertsona horien barrua ez dela ondo landu. Pertsona orekatua izateko, frustrazioei aurre egiteko eta elkarbizitza hobetzeko indarra ematen du sakoneko *ni* hori landuta izateak.

Lehen ere esan duzu beharrik izan ez dugulako ez dugula, hein handi batean, sormena landu. Zelan emango diogu buelta hori?

Pertsona osoak eginda. Azaletik bizi dugu *ni*-a, eta *ni* hori sakonetik bizitzen ikasi behar dugu. Pertsona batean bost *ni* daude: *ni ingurunea* (nik besteekin dudak harremantzen), *ni gorputza* (gorputza zaindu behar da), *ni afektiboa* (gure barruko beldurren zergatia bilatu behar dugu, gero kezka horiei aurre egin ahal izateko), *ni ideologikoa* (nik bizitzari buruz dudak pentsakera edo kosmobisioa. Izan daiteke positiboa edo negatiboa, baina positiboa izateko lan egin behar dugu). Lau horiek azaleko *ni*-ak dira, baina. Badago beste *ni* bat, ni sakon bat, horiek baino garrantzitsuagoa dena. Nik misio bat daukat mundu honetan, eta *ni* sakon horretan topatu behar ditugu misio hori eta nire aspirazio sakonenak. Eta, jakina, zenbat eta gehiago hurbildu misio horretara zoriontsuagoa izango naiz. Hamarretik bederatzi *ni* sakon hori topatu gabe joaten dira mundu honetatik, beldurra diotelako *ni* horri, eta hala bizi dira, hara eta hona, bidaia etengabe, ihesi. Azaletik bizi gara, eta egoera gaiztotzen denean, ez dugu indarririk izaten arazoak gainditzeko.

600dik gora korrikalari batu zituen Jose Gurrutxaga krosak

Elgoibar Ikastolaren 50. urteurrena presente egon zen lasterketan

Marea urdinak hartu zituen kaleak joan zen domekan, baina kamiseta urdinaz gain, Ikastolaren 50. urteurreneko kamisetak jantzi zituzten hainbat korrikalari. 607 lasterkaririk hartu zuten parte Jose Gurrutxaga krolean, iaz baino 40 gutxiagok, hain zuzen ere. Irudi ederrak utzi ditu aurtengo krosak, eta hemen dituzue horietako batzuk. Saikapenak eta argazki gehiago ikusteko: www.elgoibarren.net.




Hamahiru lasterteka izan ziren guztira.



Partaideek dena eman zuten.



Jose Gurrutxagak pozik eman zion saria ilobari.



Ikastolaren 50. urteurreneko logotipoa zabaldu zuten helmugaratzean.



Jose Gurrutxaga, lasterketari hasiera ematen.



Kiroltasuna, lehiakortasunaren gainetik.



Udaleko arduradunek, Mintxeta atletismo taldeko kideek eta Ikastolako ordezkariak banatu zituzten sariak.

CESAR ARRIOLA

Sanloko presidentea

Gaur hasi eta domekara bitartean jokatuko du Tecnifuelle senior nesken taldeak igoera fasea, eta datorren asteburuan Alcorta taldearen txanda izango da. Sanloren denboraldi bikainari errematea emateko, gainera, igoera fase biak Elgoibarren jokatuko dira. Gaur Cesar Arriola Sanloko presidentearekin hitz egin du BARRENEK, eta, besteak beste, igoera fase horietarako dituzten aurreikuspenak eta denboraldia bera, izan dituzte hizpide.



“Harro egoteko moduko denboraldia egin du aurten Sanlok”

Sanloko senior talde biek jokatuko dituzte igoera faseak. Pozik?

Bai, jakina. Igoera fasea jokatzea denboraldi guztian eginiko lanaren saria da. Senior mailako talde biek denboraldi oso ona egin dute: neskek liga irabazi dute, eta mutilek bigarren egin dute. Alcorta iaz igo zen bigarren nazional mailara, eta lehenengo urtean bigarren geratzea lorpen handia da. Horrez gain, Lauko jubenilek eta IMH kadeteek Euskadiko finalak jokatuko dituzte. Pozik gaude aurten lortu ditugun emaitzekin.

Zer dela eta erabaki zenuten igoera faseak Elgoibarren jokatzea?

Denboraldi bikain honi errematea emateko aukera polita izan zitekeela pentsatu genuen igoera faseetako bat behintzat Elgoibarren jokatzea. Urte osoan babesa erakutsi dituguten ikusleak saritzeko modu bat ere bada. Herriko taldeak kanpokoan kontra jokatzen ikusiko dituzte, eta goi mailako eskubaloiaz gozatzeko aukera eskainiko diegu, herrian bertan. Ekonomikoki kanpoan jokatzea baino apur bat garestiago aterako zaigu seguru-eruenik faseak Elgoibarren antolatzea, baina

kirol alorrean, taldeek ikusleen berotasuna igarriko dute, eta maila hobea erakusteko aukera gehiago izango dute.

Zein izango da zuen helburua igoera faseetan?

Ahalik eta goren geratzeko ahalegina egingo dugu. Jokatu eta gozatu egingo dugu, baina lehiakorak izatea ahaztu gabe. Ez da erraza irabaztea. Guk urte guztian Euskadiko taldeekin jokatzen dugu, eta ez da erraza jakitea beste lurraldeetako taldeek zein maila daukaten. Dena dela, gu lehiatzera irtingo gara kantxara, irabaztera, lehenengo postuaren bila.

Lan handia izango da zuentzat igoera faseak antolatzea, ezta?

Antolakuntza lana ez da hainbestearinokoa izango. Gainera, Elgoibarren badaukagu horrelakoak antolatzen eskarmentua, ez direlako Elgoibarren jokatuko diren lehenengo faseak. Espainia mailan bigarren aldia izango da, baina Euskadikoak sarri antolatu izan ditugu; ia urtero jokatzen da baten bat Elgoibarren. Zuzendaritzan gaudenok faseak irauten duen hiru egunak kiroldegian pasatuko ditu-

gu, dena behar den bezala irten dadin, baina ez dut uste lan zaila izango denik.

Sanlok jarraitzaile fidelak ditu. Aurten, kiroldegia betetzeaz gain, kanpoko partidetara ere joan dira zaleak. Zer esan nahi diezu?

Aurtengoa berezia izan da. Seniorren partidetan kiroldegia beteta egon da, eta liga amaieran kanpora ere jende asko etorri da. Eskerrak eman nahi dizkiogu Alcorta enpresari autobusak antolatzeko dirua eman digulako. Zaleek oso ondo erantzun dute, eta hori eskertzekoa da.

Denboraldia amaitzeaz dago. Zein balorzio egiten duzu?

Oso ona. Denboraldi historikoa izan dela esatea gehiegi izango da akaso, baina dudarik gabe, harro egoteko moduko denboraldia egin du aurten Sanlok. Horrez gain, jendeak gurekin izan duen jarra eskertu nahi nuke, hori izan delako hein handi baten faseak antolatzera bultzatu gaituena. Elgoibarko enpresa askok, gainera, diruz lagundu gaituzte, eta horiei guztiei ere eskerrak eman nahi dizkiet.

Hegoafrikako Ironman proba bukatu du Iñaki Kondek

2006an ere hartu zuen parte Kondek

Hegoafrikako Ironman proban hartu zuen parte Iñaki Kondek joan den domekan, Port Elizabethen. Haize bolada indartsuek eta euriak proba asko gogortu zuten arren, elgoibartarrak amaitzea lortu zuen, eta 1.377 parte hartzaileen artean, 1.037. lekuan iritsi zen. Elgoibartarrak 14 ordu 58 minutu eta 39 segundoko denbora behar izan zuen ibilbidea amaitzeko: 3,8 kilometro igerian, 180 km. bizikletan eta maratoni bat (42,195 km.) korrika. Kondek 2006an hartu zuen parte estreinakoz proba honetan, eta aurtengoa bigarren aldia izan da.



Tenis eta padel txapelketak antolatu dituzte

40-15 elkarteak 14 urtetik gorakoentzako tenis eta padel txapelketak antolatu ditu, Kirol Patronatuaren laguntzaz. Padel txapelketa binaka jokatu dute eta tenis txapelketan, aldiz, bakarka edota binaka jokatzeko aukera egongo da. Padel eta binakako tenis txapelketan parte hartzeko 20 euro ordaindu beharko ditu bikote bakoitzak, eta teniseko bakarkako txapelketan parte hartzeko, aldiz, pertsonako 15na euro. Maiatzaren 7an hasiko dira txapelketak, eta izena emateko epea maiatzaren 4an amaituko da. Interesatuak ondorengo telefonoetara deitu dezakete: Padel txapelketarako, 687421602 (Gorka) / 670 665 797 (Javi) eta tenis txapelketarako, 696577872 (Luis) / 670 66 57 97 (Javi).

Iñigo Lazkano zazpigarren, Arrigorriagako duatloian

Joan zen zapatuan jokatu zuten Arrigorriagako duatloia, eta Iñigo Lazkano mendarorak zazpigarren egin zuen, 3:45:40 denborarekin. Martin Dominguez izan zen Elgoibarko partaide bakarra, eta 66. lekuan amaitu zuten, 4:10:47 denborarekin.



Domeka goizetan ere zabalduko dute Mintxetako muskulazio gela, maiatzaren 6tik aurrera

Erabiltzaileen eskaerei kasu eginez, Mintxetako muskulazio gela igande goizetan ere zabalik egongo dela jakinarazi du Elgoibarko Udal Kirol Patronatuak. Udal Kirol Patronatua maiatzaren 6an hasiko da Mintxetako muskulazio gela domeketan ere irekitzen. Honakoa izango da ordutegia: astelehenetik barixakura, 10:00etatik 21:30era. Zapatuan eta domekan, berriz, 10:00etatik 13:00etara egongo da irekita. Azkenik, Patronatuko bazkideek muskulazio gelara sartzeko bazkide txartela aurkeztu behar dutela gogorarazi dute arduradunek.

EMAITZAK

FUTBOLA

Haundi 4 – Vitoria 0 (3. maila)
Roteta 0 – Elgoibar 3 (Erreg.)
Elgoibar 3 – Oñartzun 4 (Jub.)
Zarautz 5 – Elgoibar 3 (Kad. A)
Mutriku 1 – Elgoibar 2 (Kad. B)
Kostkas 2 – Elgoibar 1 (Ohorezko inf.)
Lazkao 4 – Elgoibar 5 (Inf. txiki)
Elgoibar 5 – Oriko 4 (Neskak)

ESKU PILOTA

Lagunak 22 – Azkoiti 12 (Nag.)
Intxurre 11 – Lagunak 22 (Nag.)
Lagunak 22 – Gure Txeru 12 (Jub.)
Tartaloetxe 22 – Lagunak 9 (Jub.)
Tartaloetxe 22 – Lagunak 10 (Jub.)
Zumaia 4 – Lagunak 18 (Inf.)

ARETO FUTBOLA

Concepto Egile Elg. 9 – Caspe 5 (2B maila)
King-Kong Elg. 4 – Goierri 2 (Jub.)

ESKUBALOIA

Arrasate 20 – Amenabar 30 (Sen. mut.)
Usurbil 23 – Tecnifuelle 32 (Sen. nesk.)
Grupo Eibar. Elg. 37 – Ereintza 22 (Kad. mut.)
Astigarraga Elg. 24 – Zarautz 20 (Kad. nesk.)
IMH Elg. 4. postuan, Euskadiko txap. (Kad. nesk.)
Bankoa Elg. 17 – Udarregi 21 (Inf. mut.)
Eibar B 23 – Txarriduna Elg. 21 (Inf. mut.)
Aterpe Elg. 9 – Leizaran 17 (Inf. nesk.)

AGENDA

FUTBOLA (Mintxetan)

Zapatua, 28

11:00 Elgoibar – Sanse (Kad. A)
16:00 Elgoibar – Hondarribi (Ohorezko inf.)

Domeka, 29

10:00 Elgoibar – Aretxabaleta (Aleb.)
10:00 Elgoibar – Mutriku (Aleb.)
12:00 Elgoibar – Beti Ona (Inf. Txiki)
16:30 Elgoibar – Aurrera (Ohorezko jub.)

ESKUBALOIA (Kiroldegian)

Sen. nesk. igoera fasea

Barixakua, 27

18:15 Chapela – Sagardia
20:00 Tecnifuelle Elg. – Granollers

Zapatua, 28

17:45 Sagardia – Tecnifuelle Elg.
19:30 Chapela – Granollers

Domeka, 29

10:15 Granollers – Sagardia
12:00 Tecnifuelle Elg. – Chapela

Zapatua, 28

9:15 Bankoa – Leizaran (Inf. mut.)
10:30 Txarriduna Elg. – Aloña Mendi (Inf. mut.)
11:15 Iklus Elg. – Udarregi (Inf. nesk.)
13:00 Beristain Elg. – Bergara (Jub. mut.)
16:00 Alcorta – Pulpo (Sen. mut.)

ESKU PILOTA

Barixakua, 27

21:15 Lagunak – Zumaia (Jub.)
21:45 Lagunak – Eibar (Jub.)
22:15 Lagunak – Azkoiti (Nag.)

Domeka, 29

11:30 Lagunak – Azkoiti (Inf.)
12:00 Lagunak – Azkoiti (Inf.)

Elgoibarko Izarrak jarriko du txosna bihar, hilabeteko azken zapatuko ferian

Gatzatua egiteko tailerra jarriko dute Debemenek eta Udalak

Hil bukaerako feria egingo da bihar Elgoibarren. Egitaraua ohikoa izango da, baina berrikuntza bat gehitu dute biharko: gatzatua egiten ikasteko tailerra. Hemendik aurrerako ferietan hilero umeentzako taller bat jarriko dute Debemenek eta Udalak elkarlanean, eta horren barruan ulertu behar da gatzatua egiteko biharko tailerra. Gainerakoan, Elgoibarko baserrietako produktuak erosteko aukera izango da 9:00etatik 14:00ak bitartean, eta txosna ere egongo da. Aldianaldian herriko elkarte bati egokitzen zaio txosnaren ardura hartzea, eta bihar, Elgoibarko Izarra kultur elkarteak kudeatuko du. 11:00etatik aurrera, Elgoibarko baserriarek eta hemen bertako harategiek emandako produktuekin egindako haragi-bola, txorizo, odoloste eta gazta eta irasagar pintxoak salduko dituzte, euro batean.

Eguerdiaren, eta hilabeteko azken feria egunez ohiko bihurtu denez, Kale Kantariak taldekoak irtengo dira kantura, eta ordu horretatik aurrera, atsaldara arte, ganadu azoka egongo



da Aita Agirre plazan (Plaza Txikia). Horrez gain, Club Deportivo Elgoibarrek eta Herri Eskolako guraso elkarteak mahai bana jarriko dute Nafarroa Plazan. Club Deportivo Elgoibarkoek errifak salduko dituzte, eta errifak erosten dituzten guztien artean, maiatzaren 25ean Bartzelonak eta Athleticek jokatuko duten Errege Kopako finalerako bi sarrera zozkatuko dituzte. Herri Eskolako guraso elkarteak, berriz, eskola publikoaren materiala salduko du.

Zuhaitz Gurrutxagaren kontzertua, gaur, Kultur Etxeko sotoan

Zuhaitz Gurrutxagak kontzertua eskainiko du Vanpopel taldearekin, Elgoibarko Kultur Etxeko sotoan. 23:00etan hasiko da kontzertua.

Atxutxiamaiaren udalekuetan izena emateko epea zabalik

Uda sasoi gerturatzearekin batera, Udako Planen eskaintza aurkeztu du Atxutxiamai Elgoibarko Izarraren aisialdi taldeak. Urtero legez, udaleku irekiak eta itxiak izango dira aukeran, eta dagoeneko zabaldu dute izena emateko epea. Haur Hezkuntza 2 - Lehen Hezkuntza 2 mailetan diharduten gaztetxoek udaleku irekietan parte hartzeko aukera izango dute. Lehen Hezkuntzako 3-6 mailetakoek, berriz, astebeteko bi udalekuetan parte hartzeko aukera izango dute aurten.

Sagardotegi Eguna antolatu dute Altzolan maiatzaren 5erako

Hurrengo hiru hilabeteetarako antolatu dituzten ekintzen egitaraua aurkeztu du Altzolako Zubibai elkarteak, eta horien artean dago hilaren 5erako antolatu duten Sagardotegi Eguna. Sagardotegietan izan ohi den giroa sortu nahi dute bihar zortzi, eta horretarako, herri bazkaria antolatu dute frontoian. Sagardotegiko ohiko menua izango da: bakailao tortila, txorizoa, txuleta, eta gazta, menbrilo edo irasagarrarekin. Txartelak hoge eurotan jarri dituzte salgai (8 urtera arteko umeek doan izango dute), eta interesatuek apirilaren 29a orduko eman behar dute izena ondorengo helbide elektronikoa honetan: altzola.zubibai@gmail.com. Antolatzaileek jakinarazi dute 14:30ean izango dela herri bazkaria.

Ovidio Campello zinegotzi ohia omenduko dute Semana das letras galegas jaietan

Galiza Etxeak antolatuta, maiatzaren 4tik 6ra bitartean ospatuko dute aurtengo Semana das letras galegas, eta jaiari hasiera emateko Ovidio Campello PSE-EEko zinegotzi ohia omenaldia egingo diote. 3 urte zituela etorri zen Campello Elgoibarrera, baina hil zen arte Galiza Etxeari oso lotuta egon zen, eta bere azken urteetan elkarteko presidente kargua bete zuen. Hilaren 4an izango da omenaldia, 19:30ean Aita Agirre plazan (Plaza Txikia). Era berean, PSE-EE alderdiak maiatzaren 5erako omenaldi instituzionala antolatu du, eta alderdiak Urasandin duen egoitzan izango da, 12:00etan.



Ovidio Campello iazko uztailaren 24an hil zen, gaixotasun larri baten ondorioz, 61 urte zituela.

Elgoibar Ikastolaren 50 urteko historiaren gaineko erakusketa zabalduko dute, maiatzaren 2an, Kultur Etxean

Ekainaren 9rako bazkaria antolatu dute, eta txartelak salgai daude dagoeneko

Elgoibarko ikastolak 50 urte beteko ditu datorren astean, maiatzaren 2an, eta urte hauetan guztietan egindakoa ospatzeak merezi duela-eta, hainbat ekitaldi antolatu ditu Elgoibar Ikastola hezkuntza komunitateak datozen hilabeteetarako. Ospakizun nagusi bat ere izango da, hala ere, ekainaren 9an. Egun hori ikastolaren eguna eta urteurrenoko festa ospakizunaren eguna izango da, eta antolatuzaileek jai horretan parte hartzera dei egin diete sorrerako pauso haietan eta urte guzti hauetan bidelagun izan dituztenei eta baita “euskara, euskal kultura eta Euskal Herria erreferentziatzat dituen hezkuntza egitasmora” batu diren guztiei.

Ekitaldi sorta oparoa

Gabon Zahar azokan eman zioten hasiera urteurrenari, eta ordutik makina bat ekintza egin dituzte. Orain hurrengo, maiatzaren 2an, ikastolaren 50 urteko historia batzen duen erakusketa zabalduko dute Kultur Etxean. Argazki zahar eta berriak, idatzi historikoak, liburu zaharrak eta beste hainbat material ikusteko aukera izango da, maiatzaren 12a arte. Aste barruan 18:30etik 20:30era egongo da zabalik, eta zapatuetan, 11:00etatik 14:00etara.

Maiatzaren 10erako, berriz, ikastolako ikasle izandako kirolari ospetsuekin mahai-ingurua antolatu dute musika eskolan, 19:30ean. Momentuz bi kirolari lotu dituzte: Markel Bergara eta Egoitz Mora. Maiatzaren 19an, berriz, saskibalo partidak jokatu dituzte Kalegoen plazan (Plaza Handia), eta maiatzaren 26an, Udal Musika Bandak kon-



zertua eskainiko du Kalegoen plazan, 20:00etan. “Entzuleak dantzan eta kantuan jarriko ditu Txomin Mujikak”, aurreratu du Edurne Bilbao ikastolako lehendakariordeak.

Ekainaren 9a izango da, hala ere, ospakizunen agendan egunik handiena. Herriko hainbat eragilerekin batera, jai eguna antolatu dute egun horretarako, eta ikastolako patioan egingo duten bazkaria izango da eguneko ekitaldi nagusia. Txartelak atzo jarri zituzten salgai ikastolako bulegoan, eta Tantaka eta Sua tabernetan, baina hilaren 2an zabalduko duten erakusketan eta Bankoan ere erosi ahal izango dira (k.k. 01380020 15 0020618493. Kontzeptuan, menu kopurua eta izen abizenak adierazi behar dira). Nagusientzako txartelak hamar eurotan jarri dituzte salgai, eta umeentzakoak zazpi eurotan.

‘Ingenios hidráulicos en Eibar’ liburua idatzi du Koldo Lizarralde, eta sarean jarri dute

Koldo Lizarralde *Ingenios hidráulicos en Eibar* liburua idatzi du, eta asteburuan aurkeztuko du, Tuin (Galizia) egin duten Nazioarteko Molinologia Kongresuan. Liburuan, Eibarko azkeneko errotari Ziriako Arana Berraondo *Errotarixaren* eta historian zehar herrian izan diren errota, ola, barrera eta zentral elektriko guztien berri ematen du Lizarralde. Bestera esanda, aspaldi batean loraldi handia izan zuten lanbideak bistaratu ditu, eta kontu jakin-garri asko azaleratu.

Ego Ibarrek kaleratu du liburua Interneten, eta PDF formatuan jarri dute



sarean (www.egoibarra.com). Ia 300 orrialdetako liburua da; orain mende askotako kontuak gaur egun liburuak egiteko dagoen formaturik berrienean.

Zinema mutuko hiru filmi zuzeneko musika jarriko die Iñar Sastrek Gaztetxean

Gaztetxia Sol Klabearen egitasmoaren barruan *Zinema mutuari soinu banda jarriaz* izenburuko kontzertua antolatu dute gaurko. Umerezko zinema mutuaren garaiko Charlie Chaplin eta Buster Keaton izar handien hiru film emango dituzte: *The Champion* (1915), *Paleface* (1922) eta *The Ballonatic* (1923), eta film horiei zuzeneko musika jarriko die Iñar Sastrek, pianoarekin eta perkusioarekin lagunduta. 22:30ean hasiko da saioa.

Elgoibarko dantzariak fin Billabonako txapelketan

Billabonako Aurreko eta Soinu Zahar Txapelketa jokatu zen asteburuan eta Elgoibarko ordezkariak, Eneko Gonzalezek eta Maialen Loiolak, laugarren egin zuten, nor bere kategorian.

LANA

ESKAERA

- Emakumea garbiketa lanak egin edo nagusiak zein umeak zaintzeko prest. Arratsalde. ☎ **680 226 039**
- Emakumea nagusiak edo ezinduak zaintzeko prest. Gauze, etxean zein ospitalean. Autoa daukat eta ordu-tegi malgua. ☎ **662 589 611**
- LH eta DBHko klase partikularrak ematen ditut. Titulua eta esperientzia ditut. ☎ **636 385 151**
- Emakumea garbiketa lanak egin edo nagusiak zein umeak zaintzeko prest. Tabernan laguntzeko ere prest nago. ☎ **626 292 587**
- Gizonezkoa lanerako prest. Zerbitzari edo garbiketa lanak, eraikuntzan edo nagusiak zaintzen egingo nuke lan. ☎ **626 292 587**
- Emakumea garbiketa lanak egin edo nagusiak zein umeak zaintzeko prest. Tabernan laguntzeko ere prest nago. ☎ **630 372 882**
- DBH 4. mailara arteko klase partikularrak ematen ditut. ☎ **676 722 556**
- Emakumea pertsona nagusiak edo umeak zaintzeko prest. Esperientziaduna, Interna edo orduka egingo nuke lana. Paperak ditut. ☎ **664 182 488**
- Emakumezkoa pertsona nagusiak zaintzeko prest, edozein ordutan. ☎ **943 74 00 33 / 682 255 834**
- Emakume elgoibartarra eta euskalduna naiz. Lanerako prest. Esperientzia ugari daukat dendan, tabernan, umeak zaintzen... ☎ **661 972 484**
- Erizain laguntzaile tituludun emakumea pertsona nagusiak zaintzeko prest. Garbiketa lanak ere egingo nituzke. ☎ **680 386 064**

- Emakume gaztea umeak edo pertsona nagusiak zaintzeko prest. Garbiketa eta sukaldeko lanak ere egingo nituzke. ☎ **686 052 084**

ESKAITZA

- Lantegi bateko bulegoan lan egiteko neska bat behar da, harreman zuzena. Jardunaldi erdia. Curriculumak fax zerbaki honetara bidali. ☎ **943 756 112**
- Kamareroak eta sukaldari laguntzaileak behar dira, Eibarko taberna berri baterako. Euskaraz jakitea beharrezkoa da. ☎ **686 567 471**
- Klase partikularrak jasoko nituzke, ikastolako ikaslea izan den pertsona batengandik. ☎ **608 312 572**
- Dietista-nutritzailea behar da Elgoibarko enpresa batean lan egiteko. ☎ **618 259 343**

GARAJEAK

- Garaje itxia alokatzen dut kiroldegi parean. ☎ **678 779 386**
- Garajea salgai edo alokairuan. San Roken, kiroldegi parean. Itxia. ☎ **615 758 480**

ETXEBIZITZAK

- Atikoa alokatzen dut San Frantzisko kalean. Logela bat, komuna, egongela, sukalde-jangela. Dena berri-tua. ☎ **680 707 639**
- Etxea salgai Mendaron, Garagartzan. Zaharra, baina txukuna. Baratza eta txabolarekin. ☎ **943 694 328**

- Mendaron etxea alokagai, bi logela, komuna, sukaldea, trastelekua etxe gainean, logela guztiak kanpora ematen dute, eguzkitsua eta altzariekin. ☎ **635 716 731**

LOKALAK

- Ilepaindegia alokatzen dut, oso merke. Arrazoi pertsonalengatik. ☎ **667 806 737**

BESTELAKOAK

- Urtebeteko Schnauzer arrazako txakur bat oparitzen da. ☎ **654 406 648**
- CSR motorra salgai, 125 cc, 2008. urtekoa, 2400 Km. Maletategia eta hiru kasko. Urtebeteko segurua. ☎ **630 850 390**

KINTOAK

- 1952an jaio eta aurten 60 urte egingo dituzten mendarorrek bazkaria egingo dute maiatzaren 1ean, Landa jatetxean. Interesatuak Arrats tabernan eman dezaketete izena, apirilaren 29rako.
- 1952an jaio eta aurten 60 urte egingo dituzten elgoibartarrek bazkaria egingo dute ekainaren 16an, Belaustegi jatetxean. Interesatuak 85 euro sartu behar dituzte, Euskadiko Kutxako kontu korronte honetan: 3035 0007 26 0071124362. Joan-etorria autobusez.



Langileen Eguna dela eta, apirilaren 30ean eta maiatzaren 1ean ludoteka itxita egongo da



Larunbat honetan Izarraizko konkistako bideo emanaldia izango dugu. Animatu!

HILEKO AZKEN ZAPATUKO FERIA
ELGOIBARKO IZARRAREKIN

PINTXOAK 1€

HARAGI BOLAK


TXORIZOA


ODOLOSTEA


GAZTA, IRASAGARRAREKIN


ZAPATU GOIZARI IKUTU BEREZIA EMAN NAHI BADIOZU
 ETORRI KULTUR ETXE PARERA
 Goi mailako pintxoak, euro baten truke, 11:00etatik aurrera

ELGOIBARKO IZARRA
 KULTUR ELKARTEA



• Zorionak, **Nadeth**, maiatzaren 2an 4 urte betetzen dituzulako. Amama eta aitaxoren partez.



• Zorionak, **Maren**, igandean 7 urte beteko dituzulako. Patxo handi bat etxeko guztien partez.



• **Urko**, gaur zure urtebetetze eguna da. Dagoeneko 4 urte handi dituzu, txapelduna! Muxu bat familia osoaren partez. Ondo pasa!



• Zorionak, **Josu**, asteazkenean 3 urtetxo. Muxu asko familiako-en partez.



• Zorionak, **Ekain**. Prest al zaudete igandean hiru kandela itzaltzeko? Muxu handi bat etxeko guztien partez.



• Zorionak, **Unax**, bihar 4 urte betetzen dituzulako. Etxeko-en partez, eta bereziki, Oierren partez.




• Zorionak, **Nahia**, hirlaren 23an 3 urte bete zenituelako. Askok maite zaitugu. Elgoibarko familia guztiaren partez.



• Zorionak, **Jon!** Bihar 8 urte beteko dituzu, eta ondo pasatu zure egunean. Gurasoen eta anaia Ibanen partez.



• Zorionak, **Armaia**, apirilaren 28an 3 urte beteko dituzulako. Familia guztiaren partez, bereziki Oinatz, Markel eta Goiuriren partez.




• Zorionak, **Haitzart**, zure zazpigarren urtebetetzean. Muxu handi bat Laiene eta Zugatzen partez.



• Zorionak, **Haritz!** Maiatzaren 6an urtetxo bat egingo duzu. Zein handi eta zein guapo. Patxo bat, etxeko guztien partez.



• Zorionak, **Beñat**, atzo sei urte bete zenituelako. Etxeko-en, eta bereziki, Xabiren partez.



• Zorionak, **Enara**, neska handi, asteartean 3 urte beteko dituzulako. Ondo pasa eta muxu handi bat familia guztiaren partez.



• Zorionak, **mutil handi!** Segi horrela! Muxu handi bat familia guztiaren partez. Askok maite zaitugu.




• Zorionak, **Luken**, gaur 3 urte beteko dituzulako. Familiako guztien partez.



• Zorionak, **Galder**, 6 urteko gure antzele onenari. Aupa, Galder, eta aupa, Mirri!



• Zorionak, **Nora**, bihar 15 urte. Familiako-en partez, ondo pasa.



• Zorionak, **bikote**, asteazkenean 9 urte egin dituzulako. Muxu handi bana, etxeko-en partez.



• Zorionak, **Ela Maria eta aittita**, zuen urtebetetzeak izan direlako. Muxu bat, familiako-en partez.

• Zorionak, **Ion**, gure etxeko txapelduna, 14 urte betetzen dituzulako. Denon partez, eta bereziki, Janireren partez.



Caramel

Goxokiak

San Frantzisko Kalea, 44

- Goxokiak
- Jostailuak
- Opilak
- Izoziak
- Tarta Izoziak
- Etxeko postreak, enkarguz
- Urtebetetze ospakizunetarako goxoki zorroak prestatzen ditugu

MAIATZAREN 11n INAUGURAZIOA!!



27 barixakua

Aisialdia

17:30 Kiribilka

2tik 6 urtera arteko umeentzat eta haien gurasoentzako egitasmoa. Kalegoen.

Musika

19:00 Piazzola

Inazio Bereziartua musika eskolako auditorian eskainiko dute kontzertua.

Musika

23:00 Vanpopel

Zuhaitz Gurrutxagak kontzertua eskainiko du, Kultur Etxeko sotoan.

28 zapatua

Feria

9:00 Azken zapatuko feria

Kalebarren plazan.

12:00 Kale kantariak

Kalebarren plazan.

Kontzentrazioa

13:00 'Arnaldo eta beste auzipetuak askatu'

Kalegoen plazan.

2 eguztina

Erakusketa

18:30 Ikastolaren 50.

urteurrena

Kultur Etxeko erakusketa gelan.

Hitzaldia

19:00 'Estatu Batuetako preso politikoak'

Arnaldoren aldeko plataformak antolatuta, Darrin Wood kazetariak eskainiko du hitzaldia.

3 eguna

Santa Kurutz

11:00 Meza

San Rokeko ermitan. Ondoren, salda eta txorizoa banatuko dituzte.

Aurkezpena

18:00 Enplegurako

prestakuntza

IMHk antolatuta, langile eta langabetuentzako. Kultur Etxean.

Hitzaldia

18:00 Bularreko minbizia

Onkologikoko Arrate Plazaola doktoreak eskainiko du, Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

5 zapatua

Jaia

14:30 Sagardotegi eguna

Zubibai elkarteak antolatuta, Altzolan.

10 eguna

Feria

19:00 Garagardo feria

Trinidade jaietako danborradaren elkarteak antolatuta, hilaren 13ra arte. Madalako parkean.

OKINDEGIA

29 domeka **IBARRENEA** 1 martitzena **EIZAGIRRE**

BOTIKA ORDUTEGIAK

9:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

GUARDIAK

Egunez

9:00 - 22:00

Gauetz

22:00 - 9:00

27	Fernandez	Barrenetxea
28	Yudego	Yudego
29	Yudego	Yudego
30	Zabaleta	Etxeberria
1	Etxeberria	Etxeberria
2	Ibañez	Barrenetxea
3	Garitaonandia	Garitaonandia
4	Etxeberria	Etxeberria
5	Barrenetxea	Etxeberria
6	Barrenetxea	Barrenetxea
7	Yudego	Yudego
8	Zabaleta	Garitaonandia
9	Barrenetxea	Barrenetxea
10	Ibañez	Etxeberria

Fernandez

Herriko enparantza 4, Garagartza (Mendaro)
Tel: 943 756 142

Ibañez

Rekalde, 1 (Soraluze) - Tel: 943 751 638

Zabaleta

Kalebarren, 9 (Soraluze) - Tel: 943 751 384

ZINEA

«Los Idus de marzo»

27, barixakua: 22:15

28, zapatua: 19:00/22:15

29, domeka: 19:00

30, astelehena: 21:30

«Kerity, la casa de los cuentos»

29, domeka: 16:30

«Blancanieves»

1, martitzena: 19:00/21:30

6, domeka: 16:30

«El exótico

hotel Marigold»

4, barixakua: 22:15

5, zapatua: 19:00/22:15

6, domeka: 19:00

7, astelehena: 21:30

DIAS DAS LETRAS GALEGAS, PLAZA TXIKIAN

Apirilak 28, zapatua

14:30 Anaiarteko bazkaria. Elkartean.

Maiatzak 4, barixakua

19:30 Ovidio Campello Tejjidori omenaldia.

Jarraian, Valentin Paz Andraderen omenez, Galiziako Letren inaugurazioa.

Ondoren, Galiziako muskuiluen dastaketa, doan.

20:30 eta 23:00 Acordes orkestra.

Maiatzak 5, zapatua

11:00 Galizako produktuen dastatzea.

12:00 Laudioko Espalladoiro taldearen saioa.

13:00 Bermut dantzaldia.

18:30 Dantzaldia, Haritz dantza taldea eta Espalladoiro taldearekin.

20:00 Galiziako produktuen dastatzea.

Ordu berean, dantzaldia, Acordes orkestrarekin.

23:00 Dantzaldia

Maiatzak 6, domeka

11:30 Meza

Bertan Santurtziko Corxa Airiños taldeak parte hartuko du. Jarraian, kalejira.

11:00 Galizako produktuen dastatzea.

14:30 Bazkaria. Elkartean.

LA SALLE AZITAIN IKASTETXEA

2012-2013 ikastererako eskaintza

BATXILERGOAK (A eta D)

ZIENTZIAK ETA TEKNOLOGIA / GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIAK

**Badugu
ikasteko
leku bat
zuretzat!**



La  **Salle**
Eibar



Euskadi
2 0 0 9

943 121 698

**maiatzaren
2tik 11ra**



Elgoibar Arreiturre BHI
Arregitorre 2
Tel.: 943 748 397
E-posta: 013431aa@hezkontza.net
www.elgoibarbhi.net

ELGOIBAR ARREITURRE BHI 2012-2013 IKASTURTEA



BATXILERREKO ESKAINTZA

ZIENTZIA ETA TEKNOLOGIA

Osasun zientziak

Zientzia eta teknika

HUMANITATEAK ETA GIZARTE ZIENTZIAK

Gizarte zientziak

Humanitateak

Aurrematrikulako datak: Maiatzaren 2tik 11ra



AENOR
Instituto
Regulado
del Estado
14/07/2008



Euskadi
2004



EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, LANBIDE BERTZULTZ
ETA ENPLAERATZEA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
EMPLEO Y POLÍTICA SOCIAL